

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

3820

EBAZPENA, 2017ko uztailaren 27koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabaki bat. Erabaki horren bitartez, zenbait diru-baliabide esleitzen dira 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langileentzako laguntza bereziak 2017an finantzatzeko, betiere laguntza horiek emateko prozedura arautzen duen Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko apirilaren 18ko Aginduekin bat etorritz.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2017ko uztailaren 26ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, zenbait diru-baliabide esleitu ditu otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuan ezarritako diru-laguntzak 2017an finantzatzeko, betiere Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko apirilaren 18ko Aginduan araututako prozedurari jarraituz. Errege-dekretu horren bitartez, 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langileentzako laguntza bereziak eta laneratzea errazteko neurriak ezartzen dira. Hala, Lanbideren Estatutuetako 10.2 artikuluen p) idatzi-zatian xedatutakoarekin bat etorritz (estatutu horiek maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onetsi ziren), Lanbideko zuzendari nagusiak eman behar du argitara erabaki hori.

Azaldutako guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Argitara ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2017ko uztailaren 26ko bilkuran hartutako erabakia, zeinaren bitartez zenbait diru-baliabide esleitzen baitira otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuan ezarritako diru-laguntzak 2017an finantzatzeko, betiere Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko apirilaren 18ko Aginduan araututako prozedurari jarraituz. Errege-dekretu horren bitartez, 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langileentzako laguntza bereziak eta laneratzea errazteko neurriak ezartzen dira (erabakia ebazpen honi atxikitako eranskinean dago jasota).

Bigarrena.- Ebazpen honen bidez jakinarazten den Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erabakiak ondorioak izango ditu ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Hirugarrena.- Deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiaren aurka, berraztertze-errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; edo administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 27a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JUAN JOSE BORJA BELANDIA FRADEJAS.

ERANSKINA

ERABAKI-PROPOSAMENA, LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO ADMINISTRAZIO-KONTSEILUARENA, ZEINAREN BIDEZ ZENBAIT DIRU-BALIABIDE ESLEITZEN BAITIRA 2001EKO MARTXOAREN 8KO 76/2000 ETA 2001EKO UZTAILAREN 31KO 25/2001 ENPLEGU-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEEN ERAGINPEAN DAUDEN LANGILEENTZAKO LAGUNTZA BEREZIAK 2017AN FINANTZATZEKO, BETIERE LAGUNTZA HORIEK EMATEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUEN ENPLEGU ETA GIZARTE GAJETAKO SAILBURUAREN 2012KO APIRILAREN 18KO AGINDUAREKIN BAT ETORRIZ

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko apirilaren 18ko Aginduari (2012-05-03ko EHAA, 86. zk.) helburua da arautzea otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuan ezarritako diru-laguntzak emateko prozedura. Errege dekretu horren bitartez, 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langile langabeentzako laguntza bereziak eta laneratzea errazteko neurriak ezartzen dira (196/2010 Errege Dekretua abenduaren 16ko 1783/2011 Errege Dekretuaren bidez aldatu zen). Sistemas de Instalaciones de Telecomunicaciones, S.A. (Sintel) enpresari baimena eman zitzaion enplegu-erregulazioko espediente horiek ezartzeko.

Diru-laguntzak emateko arau horren indarraldia mugagabea da. Hala ere, arauaren 6.1 artikuluan ezartzen denez, aginduan aipatzen diren laguntzak emateko diru-baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik etorriko dira. Kreditu horiek aldatu ahal izango dira indarrean dagoen aurrekontu-legeriarekin bat etorritz. Hasierako kreditua eta izan litezkeen aldaketak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez iragarriko dira.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2017ko uztailaren 26ko bilkuran eztabaidatu ondoren, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Lehenengoa: 242.440 euro esleitzea otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuan ezarritako diru-laguntzak finantzatzeko, betiere Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko apirilaren 18ko Aginduan araututako prozedurari jarraituz. Errege dekretu horren bitartez, 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langileentzako laguntza bereziak eta laneratzea errazteko neurriak ezartzen dira. Zenbateko horretatik, 28.800 euro 2017ko ordainketa-kredituari dagozkio; gainerako guztia, berriz, hurrengo ekitaldietako konpromiso-kredituari: 2018tik 2029ra. Diru-esleipen hori 3211 programaren kargura egingo da (Enplegua, 41. sekzioa – Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua).

Zenbateko hori handitu daiteke, baldin eta indarrean dagoen legeriaren arabera aurrekontuetan aldaketak onartzen badira. Aldaketa horiek eginez gero, horren berri jakinaraziko da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez.

Bigarrena: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari agintzea erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko.



ESKABIDEA

9

**LAGUNTZA BEREZIAK 2001EKO MARTXOAREN
8KO 76/2000 ETA 2001EKO UZTAILAREN 31KO
25/2001 ENPLEGU-ERREGULAZIOKO
ESPEDIENTEEN ERAGINPEAN DAUDEN
LANGABEENTZAT**

Urtea: 2017

SINTEL

Otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretua, abenduaren 16ko
1783/2011 Errege Dekretuaren bidez aldatua
(2012ko apirilaren 18ko Agindua, Enplegu eta Gizarte Gaietako
sailburuarena)

ESKATZAILEA:.....

SARRERA-ERREGISTROA

LURRALDE HISTORIKOA

ARABA	01	
GIPUZKOA	20	
BIZKAIA	48	

ESPEDIENTE ZK.

**ESKABIDEAK NON AURKEZTU**

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentraletan, Jose Atxotegi 1, 01009 Vitoria-Gasteiz eta Lanbideko enpleguko lurralde-bulegoetan:

ARABAKO LURRALDE-BULEGOA

Antillak pasabidea 14, behea
VITORIA-GASTEIZ

BIZKAIKO LURRALDE-BULEGOA

Ertzilla kalea 4
BILBAO

GIPUZKOAKO LURRALDE-BULEGOA

San Martzial 12
DONOSTIA

Horretaz gain, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

DATUEN BABESA

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan xedatutakoa betez, jakinarazten zaizu formulario honetan ematen dituzun datu pertsonalak erregistratuta geratuko direla Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren "ENPLEGURAKO ETA PRESTAKUNTZARAKO DIRU-LAGUNTZAK" izeneko fitxategian. Fitxategi horren helburuak hauek dira: Lanbideren eskumenekoak diren enplegu- eta prestakuntza-politika aktiboekin lotutako diru-laguntzak kudeatu eta kontrolatzea; beste administrazio eskudun batzuekin lankidetzan aritzea eta koordinatzea Lanbideren zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko; iruzurraren jazarpena eta estatistika-helburuak; Datuak Babesteko Euskal Agentziaren erregistroan behar bezala inskribatuta egotea, eta datuen segurtasun-neurri egokiak izatea.

Administrazio publikoak erkatu egin ahal izango ditu aurkeztutako datuak, bai eta egoki iritzitako egiaztapenak egin ere, laguntza behar bezala esleitzeko.

Halaber, jakinarazten dizugu datuok legezko kasuetan bakarrik jakinaraziko direla, eta fitxategi honi dagokionez, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari, foru- aldundiei eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrari jakinaraziko zaizkio.

Entitate eskatzaileak honako hau bermatzen du dokumentu hau sinatzean: dokumentuko datu pertsonalen titularrak baduela Datuak Babesteko Lege Organikoaren 5. artikulua ereduaren berri, eta berariazko baimena eman duela datuok –erakunde eskatzailearen titulartasuneko fitxategietan jasotakoak– orain tratatu ahal izateko.

Datu pertsonalak babesteari buruzko araudiaren arabera, datuetara iristeko eskubidea balia dezakete interesdunek, baina haiek ezeztatze, zuzentze eta tratatzearen kontra egiteko ere. DBLOk berariaz onartzen ditu eskubide horiek, eta, horretarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin jarri behar duzu harremanetan (Zerbitzu Zentralak, Jose Atxotegi 1, 01009 Vitoria-Gasteiz, Araba).



DIRU-LAGUNTZAREN ESKABIDEA

☐ DIRU-LAGUNTZA BEREZIA

☐ BERREKITEA

☐ KOPURU OSAGARRIA, GIZARTE SEGURANTZAREKIKO

☐ ALTA

☐ BERREKITEA

ESKATZAILEAREN DATUAK

Abizenak:	Jaiotze-data:
Izena:	NAN/AIZ:

ORDEZKARIAREN DATUAK

Abizenak:	
Izena:	NAN/AIZ:

JAKINARAZPENAK BIDALTZEKO HELBIDEA

Helbidea:		Posta-kodea:	
Udalerrria:		Lurralde historikoa:	
Tel.mug.:		e-maila:	

ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIEN ZERRENDIA

• Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren ziurtagiria, ordaindutakoaren arabera langabezia-saria aitortzeari eta sari hori amaitzegtiko iraungitzeari buruzkoa. Sari hori jasotzeko eskubiderik izan ezean, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren ziurtagiria, hala dela egiaztatzen duena.

• Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrekin sinatutako hitzarmen bereziaren kopia, hala badagokio.

Honako kasu honetan soilik: lanean hasteagatik diru-laguntza eten eta gero, diru-laguntza berriz jasotzen hastea eskatu duten pertsonak:

• Kaleratze-gutuna, edo kaleratzea langileari egotzi ezin zaiola egiaztatzen duen agiria.

Norberaren konturako lanpostua utzi badu:

• Gizarte Segurantzaren norberaren konturako erregimenean hartutako baja.
• Jarduera Ekonomikoen Zergan hartutako baja, lanpostua uztea eskatzaileari egozteko modukoa ez dela jasotzen duena.

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA (markatu "X" batez)

- ☐ Ez dut jasotzen helburu berbererako inolako laguntzarik beste administrazio publikoetatik.
- ☐ Ez nago itzultzeko edo zehatzeko inongo prozeduraren eraginpean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo diru-laguntzaren baten ondorioz.
- ☐ Ez zait ezarri diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor-arloko edo administrazio-arloko zigorrik, eta ez nago hartarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean.
- ☐ Ez nago administrazio-edo zigor-arloan zehatuta sexua dela-eta diskriminazteagatik, eta ez nago zehatuta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki euskal administrazio publikoen laguntza eta diru-laguntzen deialdietan parte hartzeko debekuarekin.

2017ko uztailaren 28a, ostirala



☐ Eskabide honetan emandako datuak benetakoak dira.

☐ Prest nago nire lan-gaitasunerako eta gizarte- eta lanbide-arloko baldintzetarako egokia den lan-eskaintzak onartzeko, bai eta laneratzea erraztera bideratutako jardueretan parte hartzeko ere

Bai ☐	Ez ☐	Baimena ematen diot Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari elektronikoki egiazta ditzan nire identitate- datuak eta zerga-betebeharrak (Oharra: horretarako baimenik ematen ez bada, hauxe aurkeztu beharko da: NAN/AIZ dokumentuaren kopia eta Foru Ogasunarekin dituen betebeharrak bete izana frogatzen dituzten ziurtagiriak).
Bai ☐	Ez ☐	Baimena ematen diot Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari laguntza bereziak jasotzeko eskubidearen aitortpena, jarraipena eta kontrola egiteko informazioa kontsultatzeko eta/edo Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari eskatzeko (diru-laguntza bereziak aurreikusita daude abenduaren 16ko 1783/2011 Errege Dekretuaren bidez aldatutako otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuan). Oharra: horretarako baimenik ematen ez bada, lan-bizitzaren ziurtagiri eguneratua aurkeztu beharko da.

Era berean, eskatzaileak konpromisoa hartzen du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinarazteko edozein eskaera, emakida edo bateragarriak ez diren diru-laguntzen, sarien edo pentsioen ordainketa, bai eta norberaren zein besteren kontura hasitako edozein lan, baldin eta aitorten honen ondoren eta diru-laguntza hau jaso bitartean gertatzen bada.

Aurretik esandako guztiagatik, diru-laguntza ematea **ESKATZEN DUT** dagokidan gehienezko zenbatekoan.

Vitoria-Gasteizen,.....ko.....aren.....(e)an.
(Eskatzailearen/ordezkatzailearen sinadura)

Sin.:.....